



Andoaingo Udala



Euskaraz irakurtzeak balio bikoitza du! Euskarazko liburuak erosteko 58 bonoren zozketa

Andoainen, 23-12-05.- Urtero bezala, Durangoko Azokak (DA!) bere atea irekiko ditu abenduaren 6tik 10era, bere 58. edizioan. Zalantzarik gabe euskaltzale bilkura garrantzitsua da, euskaraz sorturiko liburu, disko, argitalpen eta beste kultur ekoizpenen inguruan disfrutatzeko tartea eskaintzen diguna.

Andoaingo Udalak badu konpromisoa euskal kultura sustatzeko, eta horren barruan andoaindarrek euskaraz gehiago irakur dezaten erronka. Horregatik, iaz egin genuen bezala, eta herriko hiru liburudendekin batera, zozketa antolatu dugu gustuko duzun euskarazko liburu DOAN eskuratzeko.

Abenduaren 5etik abenduaren 20ra andoaindar guztiek har dezakete parte euskarazko liburu bat erosteko **58 bonoen zozketan**. Horretarako izena eman dezakete honako formularioan: https://labur.eus/DA_Andoain2023

Zozketa abenduaren 21ean burutuko da udaletxean, eta irabazleek urtarrilaren 20ra arte izango dute aukera gehienezko 25 euroko bonoa erabiltzeko parte hartzen duten hiru liburudendetan:

- Delgado XIX
- Ernaitza
- Stop

Informazio gehiago:

Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzua

euskarazerbitzua@andoain.eus

943 300 831